

2011an soldata murrizketak bikoiztu egiten dira

2011an irakasleei 1.400 eta 3.700€ bitarte kenduko digute gure soldatetatik, heziketa bereziko langileei berriz 730 eta 930€ artean

Guztiok jakin eta sufritu dugun moduan, 2010ean irakaskuntza langileoi batz bestea 1.400€ inguru kendu dizkigute gure soldatetatik krisia, gastuen murriztea eta aurrekontuen birmoldatzea aitzakiatzat hartuta. Kolektibo eta maila ezberdinen arabera eta antzinasunak kontutan izanda, guri zuzeneko soldatan zegozkigun 118 eta 1.718€ bitarte ordaindu gabe utzi dizkigute (irakaskuntzako langile guztien batz bestekoa kontutan izanda 1.000€ inguru langileko). Eta honi bere garaian inposatu ziguten ITZARRI BPEG (EPSV)-n aplikaturiko murrizketa gehitu ziguten, 187 eta 566€ bitarte (350€ batz bestea).

Aurrez salatu genuen moduan, 2011rako murrizketak ia bikoiztu egin dizkigute. Urtarriletik aurrera, 2010ean hilero aplikaturiko murrizketei abenduan egin ziguten antzeko murrizketa gehituko diete 2011ko aparteko bi ordainsariei. Hau honela, 2011an soldata zuzeneko murrizketak 330-etik 2.750€ra bitartekoak izango dira (irakaskuntza publikoko langile guztien batz bestekoa kontutan izanda 1.700€ inguru langileko). Eta 2011an ITZARRI BPEG (EPSV)-n aplikatu diguten murrizketa kontutan hartuz, 400 eta 950€ gehiago (650€ batz bestea).

Tamalez, berriro ere gogoratu beharrean gaude, murrizketa hauen sortzaile izan ez arren, CC.OO. eta UGT-k irakasle funtzionarioentzat gutxiengoan sinaturiko akordioak txeki zuria eman ziola jaurlaritzari murrizketa hauek aplikatzeko (Irakasle Funtzionarioen 2010-12 Lan Hitzarmena, 70. artikulua: *“los incrementos retributivos generales para el período de vigencia del presente acuerdo se establecerán en función de los acuerdos adoptados por la Mesa General de la Función Pública, condicionados por lo establecido en las disposiciones normativas legislativas de índole económico y presupuestario que operen durante dicho periodo”*).

2011an ere aplikatzen ari diren soldata murrizketa sektore publiko osoari orokorrean eta irakaskuntza publikoari gure kasuan, egiten ari diren eraso bortitzaren luzapena da. Behin eta berriro salatzen ari garen moduan, eraso honen parte dira lanpostu gutxitzea, lan baldintzak okertzea, gastu soziala eta hezkuntza gastua murriztea, prestazioak eta pentsioak desmatelatzea, iruzur fiskala jasatea, enpresa irabazien eta kapitalaren gaineko zerga jaitziera, etab. Gure lan eta diruarekin berriro ere krisia sortu eta erantzule nagusi diren banketxe eta kapital pilatzaile eta espekulatzailen negozioa elikatzen ari dira.

Arrakasta handiz egin berri dugun Greba Orokorraren bideari jarraituz, lapurreta honi eta hartzen ari diren neurriei aurre egiteko bideak ireki behar ditugu, inposatzen dizkiguten neurri hauen guztien bidegabekeriak gure ingurukoak konbentzitu, antolatu eta erantzuteko prestatu.

Ikus 2011ko murrizketa taulak:

- [Murrizketa taulak 2011 Irakasle Funtzionarioak](#)
- [Murrizketa taulak 2011 Lan-legepeko irakasleak eta Heziketa Berezia](#)
- [Murrizketa taulak 2011 Lan-legepeko Zerbitzuetoako langileak](#)